



FEUOPAR BATASUNA



Eskualdeetako Komitea

ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAREN ARTEKOA

Alde batetik, Espainiako Erresumak, eta, bestetik, Eskualdeetako Komiteak,

Ikusita, Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Kontuan hartuz, Batasuna herritarrengana hurbiltzeko ahaleginen barruan, erraztu behar da, ahal den neurrian, herritarrak eta haien ordezkariak instituzioekin beren ama-hizkuntzan komunikatzea, elementu garrantzitsua baita Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.

Adostu dute akordio hau sinatzea: ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAREN ARTEKOA, Eskualdeetako Komitean erabili ahal izateko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntza ofizialak.

Lehenengo klausula

1. Bat etorri lehen aipaturiko 2005eko ekainaren 13ko Kontseiluaren ondorioekin, eta 2. puntutik 4.era bitartekoetan aurreikusitako baldintzetan, Espainiako edozein herritarrek eskubidea du Eskualdeetako Komitara idatzizko komunikazioak bidaltzeko Espainiako Konstituzioaren arabera Espainiako lurralde osoan edo zati batean estatutu ofiziala duen gaztelaniaz besteko hizkuntzetako batean.
2. Espainiako herritar batek Eskualdeetako Komiteari 1. puntuan adierazitako hizkuntzetako batean idatzitako komunikazio bat bidali nahi dionean:
 - a) Komunikazio hori Espainiako Gobernuak horretarako izendatutako organo eskudunari bidaliko dio, azken horrek Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiari bidal diezaion gaztelaniazko itzulpen ziurtatu batekin; komunikazioaren jasotze-data izango da Eskualdeetako Komiteak itzulpen ziurtatu hori jasotzen duen eguna, bereziki Eskualdeetako Komiteak herritarrari erantzuteko epe bat duenean.
 - b) Eskualdeetako Komiteak erantzuna gaztelaniaz bidaliko dio organo horri, interesdunari bidal diezaion jatorrizko komunikazioaren hizkuntzan egindako itzulpen ziurtatuarekin batera. Itzulpen horien erantzulea ez da inola ere izango Eskualdeetako Komitea, eta hori espresuki jasoko da itzulpenaren testuan.

3. Komunikazioa egin duen herritarrak epe bat badauka Eskualdeetako Komitearen erantzuna bideratzeko, eta, 2. puntuaren xedatutakoaren salbuespen gisa, Eskualdeetako Komiteak zuzenean bidaliko dio erantzuna herritarrari, gaztelaniaz, eta jakinaraziko dio organo eskudunak itzulpen ziurtatu bat bidali beharko liokeela komunikazioan erabilitako jatorrizko hizkuntzan. Era berean, Eskualdeetako Komiteak herritarrari adieraziko dio Komiteak emandako erantzunari erantzuteko epea komunikazioa gaztelaniaz jasotzen duenetik aurrera hasiko dela kontatzen.

Eskualdeetako Komiteak bere erantzunaren kopia bat bidaliko dio organo eskudunari, interesdunari itzulpen ziurtatu bat bidal diezaion komunikazioan erabilitako hizkuntzan. Itzulpen horien erantzulea ez da inola ere izango Eskualdeetako Komitea, eta hori espresuki jasoko da itzulpenaren testuan.

4. Espainiako herritar batek Eskualdeetako Komiteari komunikazio bat zuzenean bidaltzen dionean 1. puntuaren adierazitako hizkuntzetako batean, Eskualdeetako Komiteak itzuli egingo dio, eta jakinaraziko dio kopia bat bidali diola Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari, Espainiako Gobernuak izendatutako organo eskudunari gaztelaniazko itzulpen ofizial bat egiteko eska diezaion.

Era berean, Eskualdeetako Komiteak interesdunari adieraziko dio ahalik eta lasterren erantzungo diola, itzulpena jasotzen duenetik aurrera. Eskualdeetako Komiteak 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako prozeduren arabera jardungo du.

5. Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentzialtasun-arauak uneoro errespetatzeko behar diren neurriak har daitezten, bereziki Espainiako Gobernuak izendatutako organo eskudunak egindako itzulpenari dagokionez.

Bigarren klausula

6. Osoko bilkura batean, Eskualdeetako Komiteko kide batek edo batzuek Espainiako Konstituzioaren arabera estatutu ofiziala aitortua duen gaztelaniaz besteko hizkuntza bat erabili ahal izango dute, honako baldintza hauek betez:
 - Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrak Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dio, dagokion osoko bilkura egin baino zazpi aste lehenago gutxienez, Eskualdeetako Komiteko kide horiek hizkuntza horietakoren bat erabiltzeko asmoa dutela beren ahozko esku-hartzeetan (interpretazio pasiboa); eskaeraren behin betiko berrespena Komitearen bilkura egin baino hamalau egun natural lehenago egin beharko da beranduenez ere.
 - Printzipioz, eskaera bideratu egingo da, salbu eta Komitearen Idazkaritza Nagusiak, interpretazioaz arduratzen den zerbitzuari kontsulta egin ondoren, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari jakinarazten badio ez dutela eskaerari baieztatu erantzuna emateko behar beste giza baliabide edo baliabide materialik.
7. Interpretazio pasiboaren ardura duen zerbitzuaren zuzeneko eta zeharkako kostuak, interpretazioaren ardura duen zerbitzuak Batzordeari fakturatzen dizkionak, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorraren kontura izango dira, deuseztapenari dagozkionak barne, 8. eta 9. puntuetan adierazitakoaren arabera.

Hirugarren klausula

8. Espainiako Gobernuak *bere gain hartuko ditu* administrazio-akordio hau aplikatzetik eratorritako zuzeneko eta zeharkako kostuak, Eskualdeetako Komiteari dagokionez.
9. Horretarako, Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiak ohar bat aurkeztuko du sei hilean behin. Ohar horretan, aipatutako kostuak zehaztuko dira, eta horien zenbatekoa Espainiako Gobernuak itzuli beharko du, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

Laugarren klausula

10. Sinatu ondoren, Akordioa aplikatuko da Komitearen Idazkaritza Nagusiak Espainiako Gobernuari akordioa aplikatzeko behar diren neurriak hartu direla jakinarazten dionetik aurrera. Nolanahi ere, eta lehenengo klausulako xedapenak aplikatzeko, Espainiako Gobernuak Komitearen Idazkaritza Nagusiari aurretik jakinarazi beharko dio zein organismo izendatu den 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako itzulpenak egiteko.
11. Alderdiak, ados jarrita, erabaki dezakete administrazio-akordio hau berrikustea edo salatzea, eta, indarrean jarri eta urtebetera, nola aplikatu den aztertuko dute.
12. Espainiako Erresumako enbaxadore ordezkari iraunkorra eta Eskualdeetako Komiteko idazkari nagusia arduratuko dira akordio hau aplikatzen dela zaintzeaz.

Bruselan egina, 2005eko azaroaren 16an

Ana Isabel Leiva Díez

Administrazio Publikoetarako Ministerioko Lankidetzarako estatu idazkaria

Peter Straub

Eskualdeetako Komitearen presidentea